

HIRUHILEKOKO KONTU EKONOMIKOAK (HKE). 2006KO 2. HIRUHILEKOA


## Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia %4,2 gehitu da 2006ko bigarren hiruhilekoan

**Industriaren desazelerazioak lehen hiruhilekoan lortutako urte arteko tasa (%4,4) murriztu du**

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren hazkunde erreala %4,2 izan da 2006ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Urte arteko tasa horrek puntu erdi batez gainditu du espainiar ekonomiak lortutakoa (%3,7). 25en Europar Batasunak lortutako batez besteko hazkunde tasa (%2,8) eta euro eremuak lortutakoa (%2,6) gainditu ditu. Estatu Batuetako ekonomiak %3,6ko hazkundera lortu zuen, sei dezimal txikiagoa.

Bigarren hiruhileko honetako urte arteko hazkunde garrantzitsu horrek, era berean, hiruhileko arteko gutxitze arina erakusten du. Hiruhileko arteko progresioa %1,4koa izan zen urteko lehen hiruhilekoan, eta bigarreanean %1,0 murriztu zen.

### 1. grafikoa. BPG merkatu-preziotan. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

**Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat.**

**Estatuko datuak: INE. EB-25en eta AEBen datuak: Eurostat.**

**Eskaintzari dagokionez**, sektorerik sendoena, berriro ere, **eraikuntza** da. %5,6ko hazkundera izan du, aurreko hiruhilekoaren urte arteko balioa (%5,3) hiru dezimaletan gaindituz. Hiruhileko arteko ibilbidea erkatuz gero, eraikuntzaren hazkunde erritmoa %1,1ekoa izan da lehen hiruhilekoan, eta %1,2koa bigarreanean.

Zalantzarik gabe, **industriaren sektoreak** markatu du BPGaren eboluzioa 2006ko bigarren hiruhilekoan, bere desazelerazioari esker. Urte arteko erregistroak (%4,6), oso positiboa den arren eta sektoreko batez bestekotik gora dagoen arren, aldi berean, beheranzko joera erakusten du, lehen hiruhilekoarekin (%5,4) erkatuta. Energia eta ekipamenduko ondasunak dira sektore honetako adarrik dinamikoenak.

**1. taula. BPG merkatu-preziotan. Eskaintza. Kateatutako bolumenaren indizeak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal Autonomia Erkidegoa**

|                                  | 2004       | 2005       | 2004       |            | 2005       |            |            |            | 2006       |            |
|----------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                  |            |            | III        | IV         | I          | II         | III        | IV         | I          | II         |
| Nekazaritza eta arrantza         | 29,9       | -11,5      | 34,4       | 13,9       | -4,1       | -10,5      | -14,8      | -16,7      | -10,8      | 0,4        |
| Industria                        | 2,9        | 4,4        | 3,3        | 2,2        | 3,7        | 4,3        | 4,5        | 5,2        | 5,4        | 4,6        |
| Eraikuntza                       | 4,4        | 5,3        | 4,3        | 3,9        | 4,9        | 5,3        | 5,4        | 5,8        | 5,3        | 5,6        |
| Zerbitzuak                       | 3,2        | 3,6        | 3,0        | 3,0        | 3,3        | 3,5        | 3,7        | 3,7        | 3,4        | 3,3        |
| Produktuen gaineko zerga garbiak | 4,5        | 5,0        | 4,0        | 5,4        | 4,1        | 4,7        | 5,6        | 5,6        | 7,4        | 7,1        |
| <b>BPGda merkatuko preziotan</b> | <b>3,6</b> | <b>3,9</b> | <b>3,5</b> | <b>3,1</b> | <b>3,5</b> | <b>3,9</b> | <b>4,0</b> | <b>4,3</b> | <b>4,4</b> | <b>4,2</b> |

Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

**Iturria: Hiruhilekoko kontu ekonomikoak. Eustat**

**Zerbitzuen sektoreak** %3,3ko urte arteko hazkundea ekarri du. **Merkatuko zerbitzuek** lehen hiruhilekoko urte arteko tasa bera mantendu dute, %3,5eko hazkundearekin, eta goranzko hiruhileko arteko profila dute. Lehen hiruhilekoko %0,3tik bigarren hiruhilekoko %1,4ra igaro dira. **Merkatukoak ez diren zerbitzuak** bi dezimal jaitsi dira urte arteko erkaketan. Baina posizioa hobetu dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Lehen sektoreak %10,8ko urte arteko jaitsiera izan zuen aurreko hiruhilekoan, baina bigarren hiruhileko honetan hazkunde positiboko tasak izan ditu berriro ere (%0,4), arrantzaren azpisektoreari esker (%12,4).

**Eskaeraren ikuspegitik**, urteko bigarren hiruhileko honetako urte arteko hazkunde barne-eskaerari zor zaio: %4,4ko hazkunde tasa lortu du, nahiz eta lehen hiruhilekoko erregistroaren aldean (%4,6,) bi dezimal galdu dituen. Izan ere, kanpoko saldoaren ekarpen negatiboa (esportazioak ken inportazioak) ez du ia aldakuntza erlatiborik izan lehen hiruhilekotik bigarrenera. Esportazioek, guztira, %4,3ko urte arteko hazkunde izan dute. Inportazioek, guztira, %5,4ko hazkunde izan dute.

**Etxeetako kontsumoko gastua**, hau da, kontsumo pribatua, apur bat murriztu da urte arteko erkaketan, eta nabarmenago hiruhilekoko erkaketan. Bestetik, kontsumo publikoak joera progresiboagoa du erkaketa bietan. Ondorioz, azken kontsumoak %3,9ko hazkunde izan du bigarren hiruhilekoan, lehenengoan baino dezimal bat gutxiago (%4,0).

**Inbertsioak**, kapitalaren eraketa gordinen, urteko bigarren hiruhileko honetako eskaerako osagairik aktiboenak dira oraindik ere, %5,9ko urte arteko tasarekin. Bi dezimal galdu ditu lehen hiruhilekoko urte arteko tasaren aldean (%6,1), baina hiruhileko arteko dinamismoari eutsi dio, eraikuntzaren jokaera onari esker eta ekipamenduko ondasunen adarraren bilakaera onari esker, bai haien etxeko produkzioan bai inportazioan. Hazkunde azken kontsumoaren hazkunde (%3,9) baino bi puntu handiago da.

**2. taula. BPG merkatu-preziotan. Eskaria. Kateatutako bolumenaren indizeak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal Autonomia Erkidegoa**

|                                                | 2004       | 2005       | 2004       |            | 2005       |            |            |            | 2006       |            |
|------------------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                                |            |            | III        | IV         | I          | II         | III        | IV         | I          | II         |
| Etzeguneen azken kontosumoko gastua            | 4,4        | 4,1        | 4,0        | 3,8        | 3,7        | 4,2        | 4,2        | 4,4        | 4,2        | 4,1        |
| Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua | 3,5        | 2,7        | 3,5        | 3,5        | 3,1        | 3,2        | 2,1        | 2,5        | 2,8        | 2,9        |
| Kapital-eraketa gordina                        | 7,5        | 6,3        | 7,6        | 7,9        | 6,1        | 6,3        | 6,2        | 6,6        | 6,1        | 5,9        |
| Barne-eskaria                                  | 5,1        | 4,5        | 4,8        | 4,7        | 4,2        | 4,6        | 4,4        | 4,7        | 4,6        | 4,4        |
| Guztizko esportazioak                          | 4,9        | 5,1        | 5,0        | 4,6        | 4,5        | 4,3        | 5,3        | 6,4        | 5,0        | 4,3        |
| Guztizko inportazioak                          | 7,3        | 6,0        | 6,6        | 6,5        | 5,5        | 5,5        | 5,9        | 7,1        | 6,3        | 5,4        |
| <b>BPGda merkatuko preziotan</b>               | <b>3,6</b> | <b>3,9</b> | <b>3,5</b> | <b>3,1</b> | <b>3,5</b> | <b>3,9</b> | <b>4,0</b> | <b>4,3</b> | <b>4,4</b> | <b>4,2</b> |

Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

**Iturria: Hiruhilekoko kontu ekonomikoak. Eustat**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore ekonomikoetako **langileek** puntu batean eta bi dezimaletan gairitu dute 2006ko lehen hiruhilekoko maila, eta urte arteko bilakaera %2,4 izan da 2005eko bigarren hiruhilekoaren aldean. Eraikuntzaren sektorea izan da hazkunde erlatiborik handiena izan duena.

**Hiru lurralde historikoetako BPGaren** urte arteko bilakaerak, 2006ko bigarren hiruhilekoan, ez du aldakuntza handirik ekarri EB-aren batez bestekoaren aldean (%4,2). Bizkaiko BPGaren hazkundea %4,3 da (batez bestekoa baino dezimal bat handiagoa). Araba eta Gipuzkoa, berriz, BPG osoaren hazkundetik behera daude (%4,1 eta %4,0, hurrenez hurren).

EUSTATen metodologian egin ohi denez, 2004ko aurreratutako datuak behin betikotzat sailkatu dira, eta 2005eko behin-behineko datuak aurreratutako datuak dira. Horrela, 2004ko BPGaren hazkundearen estimazioa %3,3tik %3,6ra igaro da, eta 2005ekoa, %3,7tik %3,9ra.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: José M<sup>a</sup> Agirre

Tel:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>